



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ADUNAKO UDALEKO IDAZKARI-
KONTUHARTZAILEAK

IKUSIRIK

Adunako Udalak 2010eko martxoaren hamaseian egindako ez ohiko bilkuran Udalbatzarrak erabaki zuela Adunako ur sarea hobetzeko proiektuaren kontratua prozedura itunduaren bitartez eta publizitaterik gabe behin behingoz Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresari esleitzea 111.548,80 euro gehi B.E.Z. % 16 17.847,74 euro. Guztira 129.396,14 euroko salneurrian eta hilabeteko epean ejekutatzeko baldintzarekin.

2010eko apirilaren 12an Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresak 6.649,80 euroko abala jarri zuenaren agiria eta zerga zorren eta gizarte asegurantzako obligazioekin betetzen duen ziurtagiriak aurkeztu zituela Udal bulegoetan.


Ikusirik Sektore publikoarekin kontratatzeko urriaren 17ko 30/2007 legearen 135 artikulua eta prozedura arautzen duten pleguen 20 atalak dioena, eta udalbatzarrak hartutako erabakiaren arabera behin behineko adjudikazioa behin betiko bihurtuko dela aipatu dokumentazioa aurkezten denetik hamar egunetara.

Ikusirik aipatu hamar egunak igaro direla

ZIURTATZEN DUT

Adunako udalbatzarraren 2010eko martxoaren hamaseiko behin behineko erabakia, hots Adunako ur sarea hobetzeo proiektuaren kontratua prozedura itunduaren bitartez eta publizitaterik gabe behin behingoz Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresari esleitzea 111.548,80 euro gehi (B.E.Z. % 16) 17.847,74 euro. Guztira 129.396,14 euroko salneurrian eta hilabeteko epean ejekutatzeko baldintzarekin, behin betikoa bihurtu dela bi mila eta hamarreko apirilaren hogeita hiruan.

ALKATEAREN O.I.



Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net